

ANALISIA



EAErako Hezkuntza Legea



Mikel Garcia Idiakez

@mikelgi

ARGAZKIA: IREKIA

Heziberri abiatu zuenetik Jaurlearitzak eskuartean duen EAErako Hezkuntza Legea Legebiltzarrera iritsi da azkenean. Egiatan, Legebiltzarrean politikariek eztabaidatu dutena oraindik ez da lege-proiektua ere, hausnarketarako dokumentu bat da, eragileen parte-hartze handiagoa behar zukeena eta uneotan mahai gainean dauden hainbat eztabaida inportante falta dituen.

Orain arte, administrazioak eta haren adituek prestaturiko dokumentuaz hitz egiteko bi bilerara deitu dituzte hezkuntza arloko norbanako batzuk, eta ondoren Euskadiko Eskola Kontseiluak onartu du dokumentua. Parte-hartzearen kontzeptu eskasa dirudi, eta bitxia da baita ere alderdi politikoeekin gaur arte gaia eztabaidatu ez izana, lege egonkorra izan nahi badu ezinbestekoa izango baitu negoziaketa eta gutxieneko akordioa.

Zer botatzen da faltan

Hainbat gai arantzatsuri ez die heltzen Jaurlearitzak aurkezturiko dokumentuak. Finantzaketari buruzko gogoetak oinarri-oinarrian behar luke, irizpideak eta partidak (eragileen aspaldiko eskaera da hezkuntza inbertsioa gutxienez Europar Batasuneko batez bestekora handitzea), baina dokumentuak ez du ezer aipatzen. Ez da zehazten soilik sare publikoari era-

giten dion legea den, ala itunpeko sareak ere barne hartzen ote dituen, eta hain juxtu puntu honek ditu muturtuta sare publikoa eta itunpekoa. Eskola-segregazioa gainditzeko proposamena azaletik eta neurri zehatzik gabe ageri zaigu. Behin-behineko irakasleak eta ordezkapen sistema nagusi diren egungo hezkuntza ereduari, irakaslearen egonkortzeari buruzko neurriak ere ez du jasotzen dokumentuak.

Zer dio dokumentuak

Bost atal ditu dokumentuak: Hizkuntzak, Bizikidetzak, Modernizazioa, Ebaluazioa, eta Autonomia. Hizkuntzen atalean, ez da ageri eragileek aspalditik eskaturikoa: hizkuntza ereduak desagertzea eta murgiltze eredu (D eredu) izatea eredu bakarra. Horren ordez, ikastetxe bakoitzak bere egoeraren arabera hizkuntza proiektua egitea proposatzen da, euskara ardatz. Bizikidetzan, ekitatea eta kohesio soziala aipatu arren, azaleko diagnostikoa egiten da eta premia bereziak dituzten ikaslearen matrikulazioa orekatzeko proposatzen dira: Onarpena Bermatzeko Batzordea eta lurralde mailako eskolatzeko bulegoak. Modernizazioaren atalean, irakaslearen prestakuntzan jartzen da fokua. Ebaluazioa atalean, ebaluazio hezigarri integrala aldarrikatzen da –ikasleek gain ebaluatuak izan daitezela ikastetxeak, zuzendariak eta irakasleak–, baita konpetentzien ikuspegia pixkanaka sartzeko ere. Azkenik, ikastetxeentzat autonomia handiagoa eskatzen da: pedagogian, antolaketan eta lantaldea osatzeko orduan.

EKONOMIAREN TALAIAN

De Miguel. Gezurraren hanka motzak



Juan Mari Arregi

De Miguel izenez ezagutzen den auziaren epaiketan 26 lagun daude auzipetuta eta horietako askok EAJrekin harremana daukate –burukide ohiak, zinegotzi ohiak, Ibarretxeren garaian Eusko Jaurlearitzan ardura politikoak izan zituztenak...–. Denen artean nabarmentzen da Alfredo de Miguel, Arabako EAJko buruzagi eta foru diputatu izandakoa. Kontratu publikoak esleitzearren komisio illegalak jasotzen zituen sare ustel organizatua antolatzea leporatzen diete. Fiskalak denera 450 urteko kartzela zigorra eskatu du, De Miguelelntzat 54 urte eta Aitor Telleria eta Koldo Ochandianorentzat 32 urte.

De Miguelek bere kontrako akusazioak ukatu ditzake, baina susmo oso zentzuzkoak daude Arabako EAJ zipriztindu duen sare hori existitu dela esateko. Ez da kasualitatea epaiketa denbora batez etenda egotea akusatuekin nolabaiteko akordioa bilatu nahian. Fiskalaren arabera ez dago “akordiorik”, baina bai “jaunen arteko paktua” (sic) akusatuaren zati esanguratsu batekin; “komisio illegalak jasotzen zituen sare antolatu bat bazegoela onartzeko prest” leudeke euren kondena murriztearen truke.

De Miguelek, EAJrekin lotura estua izan duen akusatu nagusiak, errugabea dela dio eta haren kontrako frogak manipulaturik daudela. Baina testuingurua ikusita ez dago batere egoera onean. Logikoa da akusazio horien aurrean (dirua zuritzea, eroskeria, kontratazioetan iruzur egitea, bortxa erabiltzea, influentzia trafikoa, malbertsazioa...) eta kondena handia datorkiola ikusirik De Miguelek edozer egitea, baita gezurra esan ere. Epailak erabaki beharko dute benetan sare ustel organizatu bat egon ote zen, eta akusatuak gezurretan ari ote diren. EAJ zipriztindu ala ez, amaieraraino joatea litzateke justuena eta zentzuzkoena, baita jeltzaleentzat beraientzat ere.